

## ZERAIN

# Zeraingo gazta eta sagardo berria aurkeztu dituzte jendaurrean

Berrikuntzekin etorri da aurtengo gazta eta sagardo berriaren aurkezpen publikoa

23.03.14 - 00:26 - ION MUÑOZA | ZERAIN.

Duela bi urte Zerainen martxan jarritako 'Gazta eta sagardoaren mendia' ekimenaren baitan, atzo eguerdian aurkeztu zuten urteko gazta eta sagardo berria. Aurtengo ekitaldia Garoa gaztandegian, Jon eta Martina artzainen gaztandegian, hasi zen goizeko 11etan. Izan ere, artegiaren ondoan katagune dotorea prestatu berri dute artzain gazteek. Kanpotik datozen bisitariei euren produktuak erakusteko eta dastatzeko aukera emango dien txokoa inauguratzeko herritarrei erakutsi nahi izan zieten lehenengo. Artzainen bizimodua eta produktuak gertutik ezagutzeko aukera egongo da aurrerantzean, herri sarreran dagoen gaztandegian.

Handik kultur etxera igo, eta aurkezpen ekitaldiak aurrera jarraitu zuen. Eta lehenengo partean, aurtengo beste nobedade bat aurkeztu zen: artzaintzari buruzko dokumental laburra.

Zeraingo artzainen bizimodua oinarri hartuta, bisitariei erakusteko artzaintzari buruzko ikus-entzunezko ederra sustatu du 'Zerain Dezagun' Fundazioak. Bideoaren ondoren, aurtengo gonbidatu nagusiak, Nikolas Seguroiak, Arantzazuko Artzain Eskolako arduradunak, hitzaldi labur batean artzainei eta ardiei buruzko azalpen argi eta atsegina eskaini zuten. Haren ondotik, Amaia Zubeldia, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko turismo arduradunak, 'Sagardoa biziz' ekimenaren barruan Zeraingo Otatza eta Oiharte sagardotegiekin izango duten lekuaz hitz egin zuten, eta sagardoaren kultura azpimarratu zuten. Jarraian, Zerain Dezagun Fundazioko Andoni Alustizak herriko artzain eta sagardogileen lana publikoki aitortu, eta etorkizunera begira zeinen garrantzitsuak diren azpimarratu zuten.

Azkenik, herriko zerbitzu turistikoak kudeatzen dituen Aldabe kooperatibako Aitziber Makazagak Zerainen aurrerantzean eskainiko diren produktu turistiko berriei hitz egin zuten. Museoaren bisitarekin batera gazta eta sagardoaren katak egin ahalko dira aurrerantzean asteburuetan, museo ondoan atondu duten Gozagunean; eta taldeentzat gaztandegi eta sagardotegietan bisita gidatuak eta katak egiteko aukera ere egongo da.

Gonbidatuen hasierako hitzen ondoren, Nikolas Seguroiak zaitu zuten aurtengo gazta berria, eta baita botilaratu berri den sagardoa ireki ere. Ondoren, ekitaldira gerturatuko herritar nahiz kanpokoek gazta eta sagardoa probatzeko aukera izan zuten. Gazten artean, Jon eta Martinaren Garoa, Basazabalgo gazta, Olabidekoa eta Milagrosena dastatzeko aukera izan zen. Guztiak ere oso-oso kremosoak eta berriak daude oraindik, baina zapore apartekoak. Sagardoari dagokionez, Oiharteko sagardoa, kortxo-eskantziadore berriduna, eta Otatzako uzta probatu ahal izan ziren.

## TAGS RELACIONADOS

zeraingo, gazta, sagardo, berria, aurkeztu, dituzte, jendaurrean

Publicidad



## ¿Un iPad nuevo por 17€?

Compradores españoles consiguen hasta un 80% de descuento usando un sorprendente truco  
[www.megabargains24.com](http://www.megabargains24.com)



## Los minerales.

¿Conoces cuáles son las funciones de los minerales?  
[www.multicentrum.es](http://www.multicentrum.es)



## Doctores están asombrados

Papá local desvela el secreto para perder 12kg super rápido desde 39€...  
[www.noticiasdesalud.com](http://www.noticiasdesalud.com)



## Calderas Vaillant

Equipadas con las mejores sensaciones. Ahora con termostato de regalo. Descubre la tuya en  
[www.vaillant.es](http://www.vaillant.es)



## ¡6 Riojas Reserva!

¡Sólo 6€ botella! Además, si es tu primer pedido GRATIS un sacacorchos  
[www.vinoseleccion.com](http://www.vinoseleccion.com)



Escribir un comentario

0 comentarios

Suscribirse RSS

DESCUBRE ZARAGOZA  
**MELIÁ ZARAGOZA**  
Hotel elegante con diseño clásico

bono 10€  
regalo por noche



MELIÁ.COM  
RESERVAR